



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAN SARTUTAKO UDALERRIETAN LAGINKETAK EGITEKO ETA LAGINAK BETELURIKO EUT-N (ARRIGORRIAGA) KOKATUTAKO HORNIKUNTZA-LABORATEGIRA GARRAIATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3136.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Isabel Echarri Gurtubay
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartutako udalerrietan laginketak egiteko eta lakinak Beteluriko EUTn (Arrigorriaga) kokatutako hornikuntza-laborategiaren instalazioetara garraiatzeko zerbitzua.

2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Hornikuntza-laborategiak, kontrol- eta zainketa-unitatea den aldetik, uraren hornidura-sistemak eta kalitatea kontrolatu eta zaintzeko programak egin eta gauzatu behar ditu urtero. Programa horiek 3/2023 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotako analisi motak eta laginketa-maiztasunak bete behar dituzte. Partzuergoak lan hori egiteko behar diren giza baliabiderik eta bitarteko materialik ez duenez, laginketak egiteko eta lakinak hornikuntza-laborategira garraiatzeko zerbitzu osagarria kontratatu behar da merkatuan. Proposatzen den kontratuak honako hauek egiteko zerbitzua ematea du xede: - Lakinak hartzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko (BBUP) udalerrietako edateko uren tratamendutegietan (EUT), biltegietan, banaketa-sarean eta kontsumitzailearen iturrian, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko hornikuntza-laborategiak zehaztutako laginketa-programaren eta prozeduraren arabera. - Hartutako lagingen tenperaturaren eta kloroaren *in situ* zehaztapen analitikoak (bai eta uhertasunarenak ere, beharrezkoa izanez gero). - Lakinak espezifikatutako kondizioetan eramatea Beteluriko EUTn (Arrigorriaga) dagoen Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hornikuntza-laborategira. - Lakinak hartzean erabili beharreko materiala prestatzea, beharrezko babesgarriak gehitzea barne. - Partida bat aurreikusten da, adjudikaziodunak ezohiko zehaztapen analitiko batzuk egin ditzan.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Ez da egokitzat jotzen Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan integratutako udalerrietan lakinak hartzeko eta aztertzeko hornikuntza-laborategira garraiatzeko zerbitzuaren kontratua lotetan banatzea, bi zereginiek erabat koordinatuta egon behar baitute. Bestalde, eta egin beharreko lan analitikoaren koordinazio- eta optimizazio-arrazoia tarteko, ez litzateke eraginkorra izango hornikuntza-eremu desberdinen artean banatzea. Inguruabar horiek kontuan hartuta, kontratua lotetan banatzeak zerbitzuaren azken xedea lortzeko kalte egin diezaikeela uste da.



B.- KONTRATUAREN XEDEA

4.- CPV: 60000000-8 Garraio-zerbitzua (hondakin-garraioa salbu).

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZa gabe)

**BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST
MILA EURO (295.000,00 €)**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 590.000 euro

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 16913 22707

URTEA

**BEZ GABEKO
ZENBATEKOA**

ZENBATEKOA, BEZik gabe

2025

123.600,00

2026

171.400,00

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI ☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI

☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hilean behin. Hilabete bakoitzeko azken bost lanegunen barruan, egindako lanen zerrenda baloratua aurkeztu beharko zaio Kontratuaren Zuzendaritzari, dagokion hileko ziurtagiria egiteko.

8.- Konturako ordainketak: Kontratuaren Zuzendaritzak hilabetetik gorako exekuzio-epea duten lanen kontu-abonamenduak egin ahal izango ditu.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: URTE BAT (1).

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

Urtebeteko luzapen bat.

4.- Bermealdia: Ez dagokio



D.- KONTRATUAREN EPEA

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Ur Partzuergoa.

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko zenbatekoa halako bat izan beharko da gutxienez. (295.000 €)

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Azken HIRU urteetan egindako antzeko izaera teknikoko zerbitzuen zerrenda, zenbatekoa, data eta hartzailea jasota, eta lehiaketa honetan planteatzen direnen antzekoak eta konparagarriak direnak, exekuzio oneko ziurtagiriek abalatuta daudenak eta exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 160.000 eurokoa edo handiagoa dutenak (BEZik gabe).
- Honako egiaztagiri hauek dituela frogatu beharko du:
 - ENAC egiaztagiria (UNE EN ISO 17025), kontsumo-uren eta ur kontinentalen laginak hartzeko.
 - ENAC egiaztagiria (UNE EN ISO 17025), kontsumo-uren eta ur kontinentalen hondar-klora, temperatura eta uhertasuna *in situ* zehazteko.
 - ENAC egiaztagiria (UNE EN ISO 17025), preskripzio tekniko partikularren agiriaren 5. apartatuan («Zehaztaperen analitikoak egitea») azaltzen diren zehaztaperen analitikoaren % 85etik gora egiteko (behaketa-zerrendako parametroak salbu).

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Ez-aplikagarria.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Memoria



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Espezifikazio teknikoak betetzen direla baloratzeko eta eskaintzaren ezaugarri teknikoak baloratzeko dokumentazio teknikoa duen memoria.

Memoria teknikoaren gehieneko orri kopuru (alde batetik) onargarria 40 izango da, ezaugarri hauekin:

- DIN-A4 tamaina.
- Letra mota eta letraren gutxieneko tamaina: ARIAL, 11 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: Bakuna.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.

Agiri bidezko egiaztapena

Memorian adierazitakoa agiri bidez egiaztatzeko, eranskin bat erantsi ahal izango da, 40 orri gaindituko ez dituen; hortaz, informazio garrantzitsura mugatu beharko da, agiri honen 13. apartatuan zehaztutako balorazio-irizpideekin zuzenean lotuta egongo da eta preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako espezifikazio teknikoak betetzen direla frogatuko du.

Webgunean eskuragarri dauden agirien erreferentziak sartu ahal izango dira, aurkeztutako dokumentazioa areagotzeko.

Memoria teknikoa eta/edo agiri bidezko egiaztapena egiteko ezarritako 40 orriak gainditzen badira, 41. orrialdetik aurrera jasotako informazioa ez da kontuan hartuko balorazioan.

Agiriak honako puntu hauetan xehatuta egongo dira, argi eta garbi bereizita:

1. Lanak gauzatzeko memoria teknikoa eta metodologia.
2. Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Lizitatzailleek ondoren zehazten diren elementu guztien prezio unitarioak adierazi beharko dituzte, zenbatekoan kontzeptu guztiak sartuta (BEZa salbu); hortaz, elementuei eskaintako prezioak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak ordainduko dira.

Prezio unitarioen taula bat erantsiko da, ondoren aurkeztu den prezio unitarioen taulan deskribatutako kontzeptuen arabera.

Prezio unitarioen taula:

ZK.	KONTZEPTUA	Parametroa	Prezioa
1	Zehaztapen analitikoak	Kontrol-analisisa	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera
2		Kontsumitzailearen iturriko uraren analisisa	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera
3		Analisi osoa (ED)	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera
4	Analisi fisiko-kimikoak (PTPAko 5. taula*)	1. taldea	POCak, PAHak, triazinak



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

5		2. taldea	Anioiak	
6		3. taldea	Metalak eta katioiak	
7		4. taldea	A Bisfenola	
8		5. taldea	THM	
9		6. taldea	Azido haloazetikoak	
10		7. taldea	PFAS	
11		8. taldea	Akrilamida	
12		9. taldea	Binil kloruroa	
13		10. taldea	Epiklorhidrina	
14		1. taldea	Kontrol-analisia	
15	Analisi mikrobiologikoak (PTPAko 6. taula*)	2. taldea	Legionella	
16		3. taldea	Kolifago somatikoak	
17		1. taldea	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera	
18	Behaketa-zerrendaren analisia (PTPAko 8. taula*)	1. taldea	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera	
19	Laginketa-taldea (lanaldi osoa)			
20	Laginketa-taldea (% 50eko lanaldia)			
21	Erreserba-eguna			
22	Erreserbakoen esku-hartzeen ordutegia			

***PTPA = Preskripzio tekniko partikularren agiria.**

Prezio horiek kontzeptu guztiak jasoko dituzte, BEZa izan ezik.

Kontratuaren aurrekontua aurreko taulako prezio unitarioen eta ondorengo «Unitateen taula eta kontratuaren guztizko aurrekontua» atalean zehaztutako unitate kopuruaren arabera kalkulatu da.

Unitateen taula eta kontratuaren guztizko aurrekontua:

ZK.	KONTZEPTUA	PARAMETROA	Prezioa	Kopurua	Guztizko partziala
1	Zehaztapen analitikoak	Kontrol-analisia	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera	20	
2		Konsumitzailearen iturriko uraren analisia	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera	20	
3.		Analisi osoa (ED)	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera	25	
4	Analisi fisiko-kimikoak (PTPAko 5. taula*)	1. taldea	POCak, PAHak, triazinak	20	
5		2. taldea	Anioiak	10	
6		3. taldea	Metalak eta katioiak	10	
7		4. taldea	A Bisfenola	20	
8		5. taldea	THM	20	
9		6. taldea	Azido haloazetikoak	20	
10		7. taldea	PFAS	20	
11		8. taldea	Akrilamida	20	
12		9. taldea	Binil kloruroa	50	
13		10. taldea	Epiklorhidrina	50	
14	Analisi mikrobiologikoak (PTPAko 6. taula*)	1. taldea	Kontrol-analisia	20	
15		2. taldea	Legionella	10	
16		3. taldea	Kolifago somatikoak	200	



AUTOMATIKOKI Kuantifikatzeko Irizpideei Buruzko Dokumentazioa

17	Analisi erradioaktiboak (PTPAko 7. taula*)	1. taldea	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera		30	
18	Behaketa-zerrendaren analisisa (PTPAko 8. taula*)	1. taldea	3/2023 EDn adierazitakoaren arabera		100	
19	Laginketa-taldea (lanaldi osoa)				5	
20	Laginketa-taldea (% 50eko lanaldia)				1	
21	Erreserba-eguna				365	
22	Erreserbakoen esku-hartzeen ordutegia				100	

***PTPA = Preskripzio tekniko partikularren agiria.**

Unitateen taula eta kontratuaren guztizko aurrekontua:

«Unitateen taula eta kontratuaren guztizko aurrekontua» atalean aurreikusitako unitate kopurua estimazio bat da; benetan gauzatutako unitate kopurua baino ez da ordainduko, eskainitako prezio unitarioen arabera.

Benetako gastua laborategiaren benetako premiek baldintzatuko dute, eta, beraz, ez dago behartuta unitate kopuru jakin bat jasotzera, ezta adierazitako zenbateko osoa gastatzera ere.

«Gustizko partzial» bakoitza kalkulatzeko, kontzeptu bakoitzaren prezio unitarioa bider taulan zehaztutako unitate kopurua egingo da. Kontratuaren GUSTIZKO zenbatekoa kalkulatzeko, taula hori bete ondoren ateratzen diren guztizko partzial guztiak batuko dira.

Egiten direnean ordaindu beharreko esku-hartzeen orduen kopuruari dagokionez, esku-hartzeen benetako orduak hartuko dira kontuan, gehi joan-etorritako denbora bat; denbora hori gehienez ere lanak hasi baino ordubete lehenago eta lanak amaitu eta ordubete geroago izango da.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatuzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral jn.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jn.

Xabier Orue Moro jn.

Itziar Zarate Urrutia and.

Gerardo Latorre Pedret jn.

Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jn.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBB) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Baldin eta $(BBB + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BBB - B_{max})}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

1.- Lanak gauzatzeko memoria tekniko eta metodologia (25 puntu)

1.1.- Eguneroko laginketen eta ibilbideen plangintzaren deskribapen xehatua. Jardueren iraupena justifikatzea, eguneroko ibilbideen hasiera- eta amaiera-orduak jasota. **10 puntu**

1.2.- Lagin-hartzaileek egiten dituzten zeregin eta lanak gainbegiratzeko jarduerak egingo diren moduaren deskribapen xehatua, bai eta kontratistaren ordezkariaren inplikazio-maila ere (jarraipen-bisitak, arduradun izendatutakoaren eginkizun eskuordetuak, eta abar): **5 puntu**

1.3.- Lanaldiaren barruko eta kanpoko komunikazio-protokoloaren eta larrialdietarako jarduketa-prozeduraren deskribapen xehatua: **4 puntu**

1.4.- Lagin-hartzaileen esku jarritako laginketa-ekipoak kontrolatzeko erabiliko den sistematikaren deskribapena (kalibrazioen/egiaztapenen egutegia, nola kudeatuko diren konponketak eta, zerbitzuz kanpo egonez gero, ordezkapenak egiteko ezarritako mekanismoa): **2 puntu**

1.5.- Lagin-hartzaileen esku jarritako ibilgailuak kontrolatzeko erabiliko den sistematikaren deskribapena (konponketak nola kudeatuko diren, IATak, aseguruak...) eta, matxurarik izanez gero, ordezkapenak egiteko ezarritako mekanismoa: **2 puntu**

1.6.- Zehaztapen analitikoaren eskaeren aurrean erantzuteko denborak (laginak bidaltzeko sistema, eskatutako analisi motaren arabera txostenak eta emaitzak entregatzeko epea): **2 puntu**

2.- Kontratuaren eskura jarritako baliabide teknikoak (25 puntu)

2.1.- Kontratuari esleitutako baliabide teknikoak eta antolakuntzakoak: Eragiketa-zentroaren eta bulego teknikoaren eta larrialdietarako *call center* delakoaren deskribapen xehatua eta proposatutako kokapena, bitartekoak eta ezaugarriak: **6 puntu**.

2.2.- Kontratuari esleitutako neurketa-ekipoen ezaugarri teknikoak (modelo, bereizmena, kuantifikazio-muga, kalibrazio-/egiaztapen-programa, etab.): **6 puntu**

2.3.-Kontratuari esleitutako ibilgailuen ezaugarriak **(4 puntu)**

- Antzinatasuna: **2 puntu**
- Pneumatikoak: **2 puntu**

2.4.- Lizitazio honen PTPAren 5. apartatuan jasotako zehaztapen analitikoetarako egiaztatutako parametroen zerrenda, egiaztatutako kuantifikazio-muga eta aitortutako ziurgabetasunak: **9 puntu**

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Hileko ziurtagirian ordaindu beharreko zenbatekoan zigortzeko arrazoia izango dira justifikatutako arrazoirik gabe laborategian laginak entregatzeko atzeratzea eta egiteko dauden lanak metatzea.

Zigor hauek aplikatuko dira:

Laborategian laginak entregatzeko ordutegia ez betetzea:

Laginak entregatzean atzeratzea onartuko da laginketak egiten dituzten langileenak ez diren eta justifikatuta dauden arrazoiengatik. Atzerapena lana gaizki antolatzeagatik bada eta hilean bost egunetan baino gehiagotan errepikatzen bada, % 10eko zigorra ezarriko da hileko ziurtagirian.

Laborategiak programatutako hileko laginketa-plana ez betetzea:

Hilabeterako planifikatutako laginketen % 5 ez badira adierazitako egunean hartzen eta horretarako justifikatutako arrazoirik ez badago, % 5eko zigorra ezarriko da hileko ziurtagirian.



M.- ZIGOR ZEHATZAK

Laginketak behin eta berriro errepikatu behar badira ez-betetze analitikoengatik, eta ez-betetze horiek laginketak hartzeko jardunbide okerrei egotzi ahal bazaizkie, % 10eko zigorra ezarriko da hileko ziurtagirian.

Kontratistari agindutako zehaztapen analitikoen txostenak eta emaitzak entregatzeko epeak ez betetzea:

Txostena entregatzeko aurreikusitako datatik hilabete bat baino gehiago atzeratuz gero, % 5eko zigorra ezarriko da hileko ziurtagirian.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra.

Kontratuaren xedea betetzeko lan osagarri batzuk kontratatu ahal izango dira, hala nola kontratistak zuzenean egin ezin dituen zehaztapen analitiko jakin batzuk.

Lizitatzailleek, eskaintza teknikoan, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia zein den adierazi beharko dute, haren izena, harremanetarako datuak eta azpikontratatistaren legezko ordezkaria edo ordezkariak adierazita, eta azpikontratatistak zeregin horiek gauzatzeko duen gaitasuna behar beste justifikatuko da, hark dituen elementu teknikoei, giza baliabideei eta esperientziari dagokienez. Halaber, eskaintza ekonomikoan, azpikontratatzeari aurreikusten den kontratuaren zatiaren zenbatekoa adieraziko da. Horrez gain, zereginak egitea aginduko zaien azpikontratisten enpresa-profila adieraziko da, gaitasun profesional edo teknikoko kondizioen arabera zehaztuta.

P.- SUBROGAZIOA

Bai.

Laguntza teknikorako kontratu honek zerbitzura atxikitako langileak ditu, eta subrogatu beharreko langileen kondizioak AKPAren VIII. eranskinean jasota daude.

Langile horiek Uraren Hitzarmenari atxikita daude (*Edateko urak eta hondakin-urak hartzeko, jasotzeko, bideratzeko, tratatzeko, banatzeko, saneatzeko eta arazteko industrien Estatuko hitzarmen kolektiboa*).

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ



BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

- Preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutakora egokituko da.
- Kontratatu nahi den zerbitzuaren premiengatik, hartu behar den eremuaren hedadura geografikoagatik eta hartu behar den lagin kopuruagatik, zerbitzuari behar bezala erantzuteko gutxienez lanaldi osoan dauden bost laginketa-teknikari eta lanaldi erdian dagoen laginketa-teknikari bat behar dira giza baliabideei dagokienez.
- Lantaldea osatzen duten teknikarien oporrak eta bajak antzeko profil eta gaitasun teknikoa duten beste teknikari batzuek bete beharko dituzte. Hori dela eta, zerbitzu hori egiteko kontratuari esleitutako langile guztiek gutxienezko prestakuntza eta kualifikazio antzekoa izan beharko dute beren artean, bai oporretan edo bajetan elkar ordezkatu ahal izateko, bai egunero egin beharreko laginketa-ibilbideetan aldizkatzeko eta txandakatzeko. Laguntza horretan garatu beharko dituzten eginkizunen ezaugarriak kontuan hartuta, gutxienez, titulazio bat edo beren lanbidean jardutean eskuratutako ezagutza bat izan beharko dute, eskola-graduatuaren edo DBHren baliokideak, lanpostuko prestakuntza espezifikoarekin osatuta. Ordezkoiei dagokienez, adjudikaziodunak egindako proposamena gutxienez 15 egun lehenago jakinarazi beharko da.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren esparruan, adjudikaziodunaren kargura dauden langileek ohiko jarduera garatzean egiten dituzten joan-etorrien ondorioz sortzen diren mota guztietako gastuak adjudikaziodunaren kontura izango dira.
- **KONTRATISTAREN ORDEZKARIA:** Kontratuaren adjudikaziodunak kontratistaren ordezkari bakarra izendatuko du, eta hura arduratuko da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin hitz egiteaz eta bere lantaldea zuzentzeaz. Halaber, lanen garapenean sor daitezkeen zalantzak argitzeko kontsultak egingo ditu.
- Kontratistak, egin beharreko lanen gauzatzean, hauetan guztietan jasotako betekizunak bete beharko ditu: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arauketa-esparruaren aldaketan (54/2003 Legea), 171/2004 Errege Dekretuan eta Lan Arriskuen Prebentzioaren arloan aplikatu daitezkeen arau guztietan jasotakoak.